

## Bestelako Xedapenak

### JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

1790

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 16koa, Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendariarena. Honen bidez ebatzen da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lan Legepeko hitzarmen kolektiboaren erregistratu, gordailatu eta argitaratzea (hitzarmenaren kode zenbakia: 8600050).

#### AURREKARIAK

Aipatutako hitzarmen kolektiboari buruzko derrigorrezko dokumentazioa 2009ko otsailaren 2an aurkeztu zuten, Zuzendaritza honetan, Enpresa Zuzendaritzak eta Enpresa Batzordeak -langileen ordezkapenean-.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.**— Langileen Estatutuari buruzko Legeko 90.2 artikulua aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari dagokio (martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 19ko BOEn argitaratua), Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 18ko 315/2005 Dekretuko (2005eko urriaren 27ko EHAA) 17.f) artikulua xedatutakoaren arabera, eta martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuak (1981eko apirilaren 2ko EHAA) eta hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzko maiatzaren 22ko 1040/1981 Errege Dekretuak (1981eko ekainaren 6ko BOE) xedatutakoaren ildotik.

**Bigarrena.**— Sinatutako hitzarmen kolektiboak Langileen Estatutuari buruzko Legearen 85., 88., 89. eta 90. artikuluek xedatutako eskakizunak betetzen ditu

Honen ondorioz,

#### EBATZI DUT:

**Lehenengoa.**— Hitzarmena Euskadiko Hitzarmen Kolektiboaren Erregistroan inskribatu eta gordailatzeko agintzea, eta aldeei jakinaraztea.

**Bigarrena.**— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 16a.

Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendaria,  
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

1790

RESOLUCIÓN de 16 de febrero de 2009, del Director de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del Convenio Colectivo del Personal Laboral del Departamento de Educación, Universidades e Investigación (código de convenio n.º 8600050).

#### ANTECEDENTES

El día 2 de febrero de 2009 se ha presentado en esta Dirección, la documentación preceptiva referida al convenio antes citado, por la Dirección de la Empresa y el Comité de Empresa, en representación de las y los trabajadores.

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

**Primero.**— La competencia prevista en el artículo 90.2 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo (BOE de 29-03-1995) corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el artículo 17.f) del Decreto 315/2005, de 18 de octubre (BOPV de 27-10-2005) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en relación con el Decreto 39/1981, de 2 de marzo (BOPV de 02-04-1981) y con el Real Decreto 1040/1981, de 22 de mayo (BOE de 06-06-1981) sobre registro de convenios colectivos.

**Segundo.**— El convenio ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

#### RESUELVO:

**Primero.**— Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios Colectivos de Euskadi, con notificación a las partes.

**Segundo.**— Disponer su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de febrero de 2009.

El Director de Trabajo y Seguridad Social,  
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA,  
UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LAN  
LEGEPEKO LANGILEENTZAKO XI. HITZARMEN  
KOLEKTIBOA

LEHENENGO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA  
EREMUAK. ORDEZKO ZUZENBIDEA

**1. artikulua.**– Lurralde-eremua.

Hitzarmen hau Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan aplikatuko da.

**2. artikulua.**– Langileak.

Hitzarmen honek honako langile hauek hartzen ditu: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari atxikitako lan-legepeko kontratua izanda, hitzarmen honetan aurreikusten diren kategorietako batean, Haur eta Lehenengo Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, Hezkuntza Bereziko ikastetxe berezietan, Bigarren Hezkuntzako institutuetan, Lanbide Heziketako ikastetxeetan eta Sail honetako lurralde-ordezkaritzetan lan egiten duten langileak, ondorengoak izan ezik:

- a) Irakasleak.
- b) Administrazio Orokorreko langileak.
- c) Hezkuntza bereziko lan-legepeko irakasleak.

**3. artikulua.**– Indarraldia.

Hitzarmen honek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu, 46. artikuluan jasotakoan izan ezik. Hitzarmen hau 2009. urteko abenduaren 31 arte luzatuko da.

**4. artikulua.**– Ordezko zuzenbidea.

Hitzarmen honetan aurreikusten eta arautzen ez den gutzirako, Langileen Estatutuari eta aplikatu ahal diren gainerako lege-xedapenei eta araudiei egingo zaie kasu.

II. KAPITULUA  
HITZARMENA SALATZEA ETA LUZATZEA

**5. artikulua.**– Hitzarmena salatzea eta luzatzea.

Hitzarmen hau urtez urte luzatuko da 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera, eta kontratua isilbidez berrituko da, izenpetzen duten alderdietakoren batek berariaz salatzen ez badu.

XI CONVENIO COLECTIVO PARA EL PERSONAL  
LABORAL DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN DEL  
GOBIERNO VASCO

TÍTULO PRIMERO

DISPOSICIONES GENERALES

CAPÍTULO I  
ÁMBITOS. DERECHO SUPLETORIO

**Artículo 1.**– Ámbito Territorial.

El presente Convenio es de aplicación a todo el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**Artículo 2.**– Ámbito Personal.

Quedará afectado por este Convenio todo el personal con contrato de trabajo de naturaleza laboral dependiente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, que preste sus servicios, en alguna de las categorías previstas en el presente Convenio, en los centros públicos de Educación Infantil y Primaria, centros específicos de Educación Especial, institutos de Educación Secundaria, centros de Formación Profesional y delegaciones territoriales de dicho Departamento, a excepción de:

- a) Personal docente.
- b) Personal del sector de Administración General.
- c) Personal laboral educativo de Educación Especial.

**Artículo 3.**– Ámbito Temporal.

El presente Convenio entrará en vigor el día de su firma. Salvo en lo dispuesto en el artículo 46 del presente convenio, los efectos económicos se retrotraen al 1 de enero de 2008. La duración de este Convenio será hasta el 31 de diciembre del año 2009.

**Artículo 4.**– Derecho Supletorio.

En todo lo no previsto y regulado en el presente Convenio se estará a lo dispuesto en el Estatuto de los Trabajadores y demás disposiciones legales o reglamentarias que resultaren aplicables.

CAPÍTULO II  
DENUNCIA Y PRÓRROGA DEL CONVENIO

**Artículo 5.**– Denuncia y prórroga del Convenio.

El presente Convenio se prorrogará de año en año a partir del 1 de enero de 2010, por la tácita reconducción si no mediara expresa denuncia de las partes firmantes.

### III. KAPITULUA HITZARMENAREN BATZORDE PAREKIDEA

#### 6. *artikulua*.– Batzorde Parekidea.

1.– Hitzarmen hau sinatzen denean, Batzorde Parekidea eratuko da. Batzordeak zeregin hauek izango ditu: itundutakoa interpretatzea, aztertzea eta betetzen dela zaintzea, bai eta, halaber, tresna juridiko hau eta bere eranskinak osatzen dituzten gaien jarraipena egitea eta garatzea, hitzarmena indarrean dagoen bitartean. Batzordearen ebazpenak lotesleak izango dira, administrazioako erakundeei eta erakunde judizialei legeek eman dizkieten eskumenei kalterik egin gabe.

2.– Batzorde Parekideak hamabi kide izango ditu gehenez ere; eta kide horiek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta hitzarmen hau izenpetzen duten sindikatuak ordezkaturiko dituzte, proportzio berean. Sindikatu bakoitzaren presentzia eta boto kualifikatua sindikatu bakoitzak duen ordezkartza ofizialari dagokiona izango da. Batzordea ahalik eta hoberen ibil dadin, Langileria-aren Kudeaketa Zuzendaritzako teknikari bat hautatuko da, eta teknikari horrek idazkari-lanak egingo ditu.

3.– Batzorde Parekidearen ohiko bilerarako deia bi hilabetean behin egingo da. Ohiz kanpoko bilerei dago-kienez, alderdiek idatziz eta, gutxienez, bilera egin baino bost egun lehenago egin behar dute eskaera (nolanahi ere, bi alderdiek bilera premiazkoa dela jotzen badute, epe hori laburragoa izan daiteke), eta argi eta garbi adierazi behar dituzte bileran azertu nahi dituzten gaiak.

4.– Batzorde Parekideak hartzen dituen erabakiak –eta dagozkien aktak– hitzarmenaren eranskin modura hartuko dira.

5.– Hezkuntza Sailak behar diren neurriak hartuko ditu Batzorde Parekidearen erabakiak interesdunei jakinarazteko.

6.– Bi alderdiek, lehenengo eta behin, Batzorde Paritarioari azertu eta erabakitzeke utzi beharko dizkiote honako hitzarmen honen ulertze, indarraldi eta ezartzeari buruzko auzi eta desadostasun guztiak, baita hitzarmenak ukitzen dituen langileen beste edozein lan-arazoren gainekoak ere.

Batzorde Paritarioa ados jarriko ez balitz, bi aldeek bitartekaritzara jo ahal izango dute. Hala eginez gero, edozein presio- edo gatazka-neurri hartu aurretik, eta ados jartze aldera, zortzi egun balioduneko epean bitartekaria edo adiskidetzalea izendatuko da bi aldeek proposatzen duten hirukotetik.

Sindikaturako gehiengoak ados badago Administrazioak aldebakarreko egintzaren ondorioz hitzarmenari kalte larria eragin diola, gehiengo horrek bilera berezi bat egiteko eskatu ahal izango dio Batzorde Paritarioari eta honek hiru egun balioduneko epea izango du gehie-

### CAPÍTULO III COMISIÓN PARITARIA DEL CONVENIO

#### *Artículo 6.*– Comisión Paritaria.

1.– A la firma de este Convenio, se constituirá una Comisión Paritaria, la cual asumirá las funciones de interpretación, estudio y vigilancia de lo pactado, así como el seguimiento y desarrollo de cuantos temas integran este instrumento jurídico y sus anexos, durante la totalidad de su vigencia. Sus resoluciones serán vinculantes, sin perjuicio de las competencias legalmente atribuidas a las Entidades Administrativas y Judiciales correspondientes.

2.– La Comisión Paritaria, estará integrada, en igual proporción, por un máximo de doce miembros, en representación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco y de todas las Centrales Sindicales que firmen este Convenio. La presencia y voto cualificado de cada sindicato será la que corresponde a su representatividad oficial. Para el mejor funcionamiento de esta Comisión, se nombrará un Técnico o una Técnica de la Dirección de Gestión de Personal, que actuará como Secretario o Secretaria.

3.– La Comisión Paritaria se convocará ordinariamente con carácter bimensual. En supuestos de carácter extraordinario, se reunirá siempre que las partes lo soliciten por escrito con una antelación mínima de cinco días (plazo que podrá ser inferior en casos de reconocida urgencia por ambas partes), expresando claramente los temas cuyo tratamiento se propone.

4.– Los acuerdos de la Comisión Paritaria serán considerados -con su correspondiente acta- como anexos del Convenio.

5.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación promoverá cuantas medidas sean precisas para la comunicación de los acuerdos de la Paritaria a las instancias interesadas.

6.– Ambas partes someterán a conocimiento y resolución de la Comisión Paritaria, con carácter previo, todas las discrepancias en cuanto a la interpretación, vigencia y aplicación del Acuerdo de aquellas, así como otras cuestiones de tipo laboral que afecten al personal incluido en su ámbito.

Si no se alcanzare acuerdo en el seno de la Comisión Paritaria, ambas partes podrán someterse a mediación, en cuyo caso, con carácter previo a la adopción de cualquier medida de presión o conflicto, en el plazo de ocho días hábiles se designará el o la correspondiente mediador-mediadora o conciliador-conciliadora de entre la terna que ambas partes propongan al efecto de mutuo acuerdo.

Cuando la mayoría de la parte sindical considere que un acto unilateral de la Administración hubiere vulnerado gravemente el convenio, dicha mayoría solicitará una reunión extraordinaria de la Comisión Paritaria que se reunirá en el plazo máximo de tres días hábiles a

nez. Ikasturte bakoitzean, ezin izango da hiru aparteko bilera baino gehiago egin.

#### IV. KAPITULUA LANA ANTOLATZEA

##### **7. artikulua.**– Lana antolatzea.

Lana antolatzea eta diziplina jartzea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ahalmena da, horrela ezartzen baitute Langileen Estatutuak eta dauden edo argitaratu daitezkeen gainerako lege-xedapenek, eta, orobat, hitzarmen honen eraginpean dauden langileek lan egiten duteneko ikastetxeetan aplikatu daitezkeen xedapenek.

Hezkuntzako Administrazioak lan-kontratuaren araberako agintzen dizkien zerbitzuak egin beharko dituzte langileek, egutegiko urte osoan edo, kontratua urtebete baino laburragoa bada, kontratuak dirauen bitartean, hitzarmen honetako artikuluetan aipatzen diren jaiegutuetan eta oportuetan izan ezik.

#### BIGARREN TITULUA LANGILEEI BURUZKOA

##### I. KAPITULUA LANGILEEN SAILKAPENA. PLANTILLA

**8. artikulua.**– Langileen sailkapena, burutzen dituzten zereginen arabera.

1.– Hitzarmen honen aplikazio-eremuan dauden langileak II. eranskinean ageri diren mailetan sailkatuko dira, egiten duten lana aintzat hartuta. Bigarren eranskin horretan adierazten dira maila dagozkien definizioak.

2.– Zehazten diren kategoriak aipamena egiteko baizik ez dira, eta horrek ez du esan nahi guztiek beteta egon behar dutenik, ikastetxeko jardueraren beharrak edo kopuruak ez badu horrelakorik eskatzen, eta indarrean dauden xedapenek ez badute nahitaez eskatzen irakaskuntzako maila, gradu edo modalitate bakoitzera. Nolanahi ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztuko ditu zerbitzu eta ikastetxe bakoitzera behar diren langileak.

**9. artikulua.**– Langileen sailkapena, egonaldiaren arabera.

1.– Zerbitzuko egonaldiaren arabera, hitzarmen honen eraginpean dauden langileen artean, langile finkoak, zerbitzua etenka edo zikloka egiten duten aldizkako langile finkoak eta iraupen jakineko kontratua duten langileak bereizten dira.

2.– Iraupen jakineko kontratua duten langileen artean, bitarteko langileak eta behin-behineko langileak bereizten dira.

partir de su solicitud. No podrán celebrarse más de tres reuniones extraordinarias por curso escolar.

#### CAPÍTULO IV ORGANIZACIÓN DEL TRABAJO

##### **Artículo 7.**– Organización del trabajo.

La disciplina y organización del trabajo es facultad del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, en consonancia con lo previsto en el Estatuto de los Trabajadores y demás disposiciones complementarias o que puedan publicarse, así como las aplicables a los centros en que prestan servicios las trabajadoras y trabajadores afectados por este Convenio.

El personal vendrá obligado a prestar los servicios que conforme a su contrato laboral le señale la Administración Educativa, durante todo el año natural o por el tiempo de contrato, si este fuese de menor duración, salvo fiestas laborables y vacaciones señaladas en el artículo de este Convenio.

#### TÍTULO SEGUNDO DEL PERSONAL

##### CAPÍTULO I CLASIFICACIÓN DEL PERSONAL. PLANTILLA

**Artículo 8.**– Clasificación del personal por realización de funciones.

1.– El personal comprendido en el ámbito de aplicación del presente Convenio se clasifica, conforme a las funciones que realiza, en las categorías que figuran en el anexo II de este Convenio. En dicho anexo II se expresan las definiciones correspondientes a las distintas categorías.

2.– Las categorías especificadas son enunciativas y no supone la obligación de tener provistas todas ellas, si la necesidad o el volumen de la actividad de los centros no lo requieren y las disposiciones vigentes no lo exigen para cada nivel, grado o modalidad de la enseñanza. En cualquier caso, será el Departamento de Educación, Universidades e Investigación el que determine la plantilla necesaria para cada servicio y centro.

**Artículo 9.**– Clasificación del personal por razón de permanencia.

1.– Por razón de permanencia al servicio el personal afectado por el convenio se clasifica en personal fijo, fijos discontinuos de ejecución intermitente o cíclica y personal contratado por duración determinada.

2.– Tendrá la consideración de personal contratado por duración determinada el personal laboral de interinidad y el personal con contrato eventual.

3.– Langile kopuruaren eskakizunei erantzun nahi zaienean, aldi baterako kontratuak egingo dira, horretarako ezarritako ratioak aplikatuz, ikasturte bakoitzerako premiak aldakorrak izaten baitira.

Kontratu-mota honen iraupena bederatzi hilabetea izango da gehienez, hamabi hilabete epean, kontratu hori egitea eragin zuen gertaera jazotzen den egunetik hasita. Hori guztia Langileen Estatutuaren 15.1.b) artikuluan jasotako habilitazioaren arabera egingo da, horrek aukera ematen baitu sektoreko hitzarmen kolektiboaren bidez kontratu-mota horrekin kontratazko irizpideak finkatzeko.

**10. artikulua.**– Plantilla.

Administrazioak erregularizatu egingo du egungo langile-plantilla; horretarako, zuzenean kudeatzen diren eta janaria «in situ» prestatzen duten jantokiak dituzten ikastetxeetan sukaldeko langileak jarriko ditu. Ildo horretatik, 2008-2009 ikasturtean borondatezko lekualdatze-lehiaketa egingo da lanpostu horiek betetzeko.

Halaber, langile kopuru hori handitzeko jarduketak egingo dira, aurreko paragrafoan deskribatutako tipologiako ikastetxeetan aurrerantzean egon litezkeen premiei erantzutearen ondorioz.

Gainera, Batzorde Paritarioak hezkuntza-sisteman dauden premiak aztertuko ditu urtero, beharrezkotzat jotzen bada langile kopurua egokitzeko, edo aldi baterako kontratazio jakin batzuk finkatzeko, horiek lanpostuen zerrendan sartuta.

Nolanahi ere, hitzarmen hau indarrean jartzen den uanean aurrekontuan dagoen langileen ordutegi-kredituari eustea bermatzen da.

II. KAPITULUA  
LANGILEEN KONTRATAZIOA, PROBALDIA,  
LEKUALDAKETAK, KARGUA UZTEA ETA  
ERRETIROA

**11. artikulua.**– Kontratazioa.

Langile berriak hartzeko, Autonomia Erkidego honetako Administrazioak langileak kontratazko ezarri dituen arau orokorrak bete behar dira. Halakorik ezean, kontratazioaren arloan legeek xedatzen dutena beteko da.

Lan-kontratua, modalitatea zeinahi ere den, idatziz gauzatuko da, eta hiru aletan egingo da. Kontratuan parte hartzen duen alderdi bakoitzak ale bana izango du, eta bestea eskumena duen erakundearentzat izango da.

3.– Los contratos eventuales se celebrarán cuando se trata de atender las exigencias de dotación de personal en aplicación de los ratios establecidos al efecto, considerando que las necesidades de cada curso escolar son variables.

La duración de esta modalidad contractual será de un máximo de nueve meses dentro de un periodo de doce meses, desde la fecha en que se produjo la causa que justifique su utilización. Y ello conforme a la habilitación del artículo 15.1.b) del Estatuto de los Trabajadores que permite que por convenio colectivo sectorial se establezcan los criterios de contratación en esta tipología contractual.

**Artículo 10.**– Plantilla.

La Administración procederá a la regularización de la presente plantilla del personal, mediante la dotación de cocineros y cocineras a los centros con comedores de gestión directa y elaboración de la comida «in situ». En este sentido en el curso escolar 2008-2009 se realizará un concurso de traslados voluntario que permita cubrir dichas plazas.

Asimismo, se realizarán las actuaciones tendentes al incremento de dicha plantilla como consecuencia de dar respuesta a las necesidades que en adelante pudieran existir en centros de la tipología descrita en párrafo anterior.

Asimismo, la Comisión Paritaria, anualmente, estudiará el conjunto de las necesidades de limpieza y cocina existentes en el sistema educativo, al objeto de si ello se considera necesario, proceder a la adecuación de la plantilla existente o a la consolidación de determinadas contrataciones temporales, incluyéndolos en la relación de puestos de trabajo.

En cualquier caso, se garantiza el mantenimiento del crédito horario de la plantilla presupuestaria existente en el momento de la entrada en vigor del presente convenio.

CAPÍTULO II  
CONTRATACIÓN, PERIODO DE PRUEBA,  
TRASLADOS, CESE Y JUBILACIÓN  
DEL PERSONAL

**Artículo 11.**– Contratación.

La admisión de nuevo personal se ajustará a las normas generales sobre contratación de trabajadores y trabajadoras establecidas por esta Administración Autónoma y, en su defecto, por lo dispuesto legalmente en materia de contratación.

El Contrato de Trabajo, cualquiera que sea su modalidad, deberá formalizarse por escrito y por triplicado quedándose un ejemplar cada parte contratante y otro el Organismo competente.

**12. artikulua.**– Probaldia.

Sartu berri diren langile finko guztiek probaldi bat izango dute, gehienez ere egutegiko hamabost eguneko.

Probaldian, langileak eta Hezkuntza Sailak askatasun osoz suntsiaraz dezakete kontratua, aurretik oharpenik egin gabe eta kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Lan-kontratu finkoa egin ez zaion langileari, finkoa izatea lortzen duenean, lanean aritutako egun guztiak balioztatuko zaizkio probaldirako eta antzinatasunerako.

**13. artikulua.**– Lekualdatze-lehiaketa.

1.– Lan-legepeko langile finkoek urtero lekualdatze-lehiaketan parte hartu ahal izango dute lanpostu hutsak edo berriak eskuratu ahal izateko.

2.– Eskaintzen diren lanpostuetarako hitzarmen honen aplikazio-esparruan dauden langile finko guztiak lehiatu ahal izango dira.

Lanpostu bera hartzeko langile bat baino gehiago aurkezten bada, Batzorde Parekideak baremo bat egingo du, honako irizpide hauek kontuan izanik:

- 1) Ikastetxean soberan dagoen langilea.
- 2) Antzinakotasuna enpresan.
- 3) LEZ-Sartzeko oharra.
- 4) Adinez nagusia izatea.

Kasu guztietan, lehenetsun osoa izango dute eskaintako lanpostuaren izaerari dagokion kategoria duten langileek, eta kategoria ezberdina duten langileen eskabideek izaera ordezkatzailerako izango dute.

3.– Eskabideak dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu beharko dira, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzara zuzenduko dira.

Garbitzaile-mailatik sukaldako mailara igarotzeko, ezinbestekoa izango da eskaerarekin batera janari-erabiltzaile txartela aurkeztea.

4.– Lehiaketa amaitu ondoren, sistema horren bidez destinoa lortu duten langileek derrigorrez bete beharko dute lortutako lanpostua. Lanpostua lehiaketa bidez lortu dutenek ezingo dute beste batean parte hartu, lanpostu berria betetzen denetik bi urte igarotzen diren arte.

**14. artikulua.**– Lana uztea.

Beren borondatez lana utzi nahi duten langileek Hezkuntza Sailari jakinarazi beharko diote, idatziz eta lana utzi baino hamabost egun lehenago aurre-abisua egin. Aurre-abisua garaiz eta behar bezalako forman

**Artículo 12.**– Período de Prueba.

Todo el personal fijo de nuevo ingreso quedará sometido al periodo de prueba, cuya duración máxima de quince días naturales

Durante el periodo de prueba, tanto el trabajador y la trabajadora como el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, podrá resolver libremente el contrato, sin plazo de preaviso ni derecho a indemnización.

Al personal no contratado como fijo, de acceder a esta condición, se le computarán todos los días trabajados como válidos para el periodo de prueba y para la antigüedad.

**Artículo 13.**– Concurso de Traslados.

1.– El personal laboral fijo contará anualmente con un concurso de traslados en los que se ofertarán los puestos de trabajo vacantes o de nueva creación.

2.– Podrán concurrir a las plazas que se oferten todo el personal fijo incluido en el ámbito de aplicación de este Convenio.

En el caso de que haya más de un trabajador o trabajadora que aspire a la plaza, se seguirá un baremo a desarrollar por la Comisión Paritaria que prioritariamente ha de atender en su elaboración a los criterios siguientes:

- 1) Trabajadora o trabajador excedentario en su centro.
- 2) Antigüedad en la empresa.
- 3) NRP-Nota de Acceso.
- 4) Mayor edad.

En todos los casos, tendrá prioridad absoluta el personal cuya categoría corresponda a la naturaleza de la plaza ofertada, teniendo carácter subsidiario las solicitudes de los trabajadores y trabajadoras pertenecientes a categoría distinta.

3.– Las solicitudes, que habrá de presentarse en la Delegación Territorial de Educación correspondiente, estará dirigida a la Dirección de Gestión de Personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Para el paso de la categoría de limpieza a la de cocina será ineludible presentar junto con la solicitud el carnet de manipulador de alimentos.

4.– Una vez finalizado el concurso, los trabajadores y trabajadoras que hubieran obtenido destino por este sistema habrán necesariamente que ocupar la plaza que se ha conseguido. Quienes obtengan plaza por concurso no podrán volver a tomar parte en uno nuevo hasta que hayan transcurrido dos años desde la toma de posesión del nuevo puesto.

**Artículo 14.**– Ceses.

El personal que desee cesar voluntariamente deberá ponerlo en conocimiento del Departamento de Educación, Universidades e Investigación por escrito, con un preaviso de quince días. Recibido el preaviso, en tiempo

hartuz gero, lan-harremana bukatzeko likidazioa egin beharko zaio langileari, eta likidazioa egin eta hurrengo hilabetean ordaindu beharko zaio.

Behin-behineko langileek kontratua bukatzean utziko dute kargua, itundutako epea edo luzapenarena bukatu delako. Bitarteko langileek ordezkatzen duten titularra lanera itzultzean edo araudi espezifikoaren araberan lanpostua betetzen denean utziko dute kargua.

### **15. artikulua.**– Erretiroa.

1.– Hitzarmen honen eraginpean dauden langileak 65 urterekin erretiratuko dira. Adin hori betetzen denean hasiko da, hain zuzen ere, erretiroa. Prestaziorako eskubidea izateko behar den gabe-aldia bete ez badu, langileak lanean jarraitu ahal izango du, prestaziorako eskubidea izan arte.

2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ordezkoen kontratuak egingo ditu partzialki erretiratutako langileak ordezkatzeko. Horientzat Hezkuntza Sailko langileen hitzarmen kolektiboa da aplikatzekoa.

Erretiro partziala –eta ondoriozko ordezko kontratua– gauzatzeko baldintzak enpresaren eta partzialki erretiratutako langileen artean adostuko dira.

Ordezko kontratuak erretiro partzialak irauten duen denbora iraungo du, eta beti ere erretiratu partzialak 65 urte betetzen dituen unean iraungiko da.

Partzialki erretiratzen den langileak, une oro, indarrean den legeriak kotizaziopeko pentsioa sortzeko eskatutako eskakizun orokorrak bete beharko ditu.

Eskabidea eskakizun horiek betetzen diren unean egingo da. Nolanahi ere, erretiro partziala eskatzen duen langileak uko egin ahal izango dio eskabideari kontratua ordezkoari esleitu aurretik.

Ordezkoaren lanaldi-portzentajea % 100ekoa izango da. Ordezko kontratuak betetzeko sistema une bakoitzean indarrean den legerian eta hitzarmen kolektibo honetako ordezkapen-araudian ezarritakoa izango da.

Administrazioak ordaindu beharreko ordainsariak –bai erretiratu partzialari, bai ordezkoari– lan egiten den kategoriarako hitzarmen kolektiboan onartutakoen zati proportzionala –lanaldiaren arabera– izango dira, urtero aplikatzen diren soldata-igoerak barne. Urteko ordainsaria hamabi soldatako ordainketa proportzionalen eta aparteko bi ordainsariren bidez egingo da.

y forma, se realizará al trabajador o trabajadora la liquidación correspondiente al terminar la relación laboral y se abonará dentro del mes siguiente a la misma.

El cese del personal eventual tendrá lugar al finalizar el contrato, por expiración del plazo convenido o de la prórroga en su caso. El del personal laboral interino, tendrá lugar cuando se reintegre la o el titular a quien sustituye la trabajadora o el trabajador interino o se provea la plaza conforme al proceso previsto en la normativa específica.

### **Artículo 15.**– Jubilación.

1.– Se establece la edad de jubilación de las trabajadoras y trabajadores incluidos en el ámbito de aplicación del presente Convenio a la edad de 65 años, surtiendo efectos el día de cumplimiento de la misma. Cuando no estuviere cubierto el periodo de carencia preciso para causar derecho a la prestación correspondiente se podrá seguir en activo hasta causar derecho a la misma.

2.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación formalizará contratos de relevo para la sustitución de trabajadoras y trabajadores laborales jubilados parcialmente a los que es de aplicación el Convenio Colectivo del personal laboral del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Las condiciones en las que se materializará la jubilación parcial y -el consiguiente contrato de relevo- se adoptará de común acuerdo entre empresa y las trabajadoras y trabajadores jubilados parcialmente.

El contrato de relevo durará el tiempo en que dure la jubilación parcial, extinguiéndose en todo caso en el momento en que la o el jubilado parcial alcance la edad de 65 años.

El trabajador y la trabajadora que se jubila parcialmente deberá cumplir, en cada momento, los requisitos generales exigidos para causar pensión contributiva por la legislación vigente.

La solicitud se realizará en el momento en que se cumplan dichos requisitos. En cualquier caso la trabajadora o el trabajador que solicita la jubilación parcial podrá desistir de su solicitud con anterioridad a la adjudicación del contrato a el o a la relevista.

El porcentaje de dedicación del o la relevista será del 100%. El sistema de cobertura de los contratos de relevo será el establecido -en cada momento- en la legislación vigente y en la normativa de sustituciones del presente convenio colectivo.

Las retribuciones a abonar por la Administración –tanto a el jubilado o jubilada parcial como a el o la relevista– serán la parte proporcional –de arreglo a su dedicación– de las reconocidas en convenio colectivo para la categoría con la se trabaja, con los incrementos salariales que se apliquen en cada año. Se procederá al prorrateo de la retribución anual en doce mensualidades y dos pagas extraordinarias.

## HIRUGARREN TITULUA

LANALDIA, OPORRAK, LIZENTZIAK, BAIMENAK  
ETA ESZEDENTZIAKI. KAPITULUA  
LANALDIA**16. artikulua.**– Lanaldia.

Lanaldi-erregimen hau ezartzen da:

Garbitzaileak	1.592 ordu.
Sukaldaria	1.580 ordu.
Sukaldeko langileak	1.580 ordu.
liburuzaina	1.592 ordu.
Idazkaria/administraria	1.592 ordu.
Administrazioko burua	1.592 ordu.
Administraria	1.592 ordu.
Administrari ofiziala	1.592 ordu.
Administrari laguntzailea	1.592 ordu.
Administrari laguntzailea	1.592 ordu.
Lehen mailako ofiziala	1.592 ordu.
Atezain-zaintzailea	1.592 ordu.
Biltegizaina	1.330 ordu.
Kualifikaziorik gabeko langileak	1.592 ordu.

Hitzarmen honetan itundutako iraupena ez duten lanaldi murriztuko kontratuak egin ahal izango dira, ikastetxearen premien arabera. Langile horrek jasoko duen soldata kontratatu diren orduen heinekoa izango da.

Edozein kasutan ere, asteko lanaldia ikastetxearen egutegiari eta urteko lanaldiari egokitu beharko zaio.

Aldizkako langile finkoen urteko lanaldia 1.354 ordukoa izango da, bederatzi hilabeteko prestazio-aldian, eta 1.480 ordukoa hamar hilabeteko prestazio-aldian.

Eskola-jantokietan laguntzeko egindako behin-behineko kontratuak 10, 15, 20, 25, 30, 35 eta 40 ordukoak izan daitezke astean, ondorio horretarako ezarritako ratioei jarraiki.

## TÍTULO TERCERO

JORNADA, VACACIONES, LICENCIAS, PERMISOS Y  
EXCEDENCIASCAPÍTULO I  
JORNADA DE TRABAJO**Artículo 16.**– Jornada.

Se establece el siguiente régimen de jornada:

Personal de Limpieza	1.592 horas
Cocinero o Cocinera	1.580 horas
Personal de Cocina	1.580 horas
Bibliotecario o Bibliotecaria	1.592 horas
Secretario/a / Administrador/a	1.592 horas
Jefe/a de administración	1.592 horas
Administrativo/a	1.592 horas
Oficial Administrativo	1.592 horas
Auxiliar Administrativo/a	1.592 horas
Técnico de Mantenimiento	1.592 horas
Oficial de primera	1.592 horas
Portero-Vigilante	1.592 horas
Almacenero o Almacenera	1.330 horas
Personal no cualificado	1.592 horas

Podrá contratarse personal con jornada reducida de distinta duración a las pactadas en este Convenio, en función de las necesidades del centro, percibiendo su retribución en proporción al número de horas contratadas.

La jornada semanal se adecuará, en todo caso, al cumplimiento del calendario del centro en que presta servicios y su jornada anual.

La jornada anual del personal fijo discontinuo será de 1.354 horas, en un periodo de prestación de nueve meses y 1.480 horas en un periodo de prestación de diez meses.

Los contratos eventuales de apoyo en los comedores escolares podrán ser de 10, 15, 20, 25, 30, 35 y 40 horas semanales conforme a los ratios establecidos al efecto.



**17. artikulua.**– Lan-egutegia.

Honako irizpideak hartuko dira kontuan lan-egutegian:

a) Urteko lan eraginkorraren zenbaketa (irailaren 1etik abuztuaren 31ra) hitzarmenaren 16. artikuluan ezarritakoa izango da, langile bakoitzak hitzartuta duen asteko lanaldiaren arabera.

b) Sukaldeko langileak eta aldizkako langile finkoak izan ezik, langileak udako lanaldi trinkoan arituko dira uztailearen 1etik irailaren 15era bitartean. Lanaldi osoa duten langileen lanaldi trinkoa sei ordu eta erdikoa izango da, eta gainerakoentzat dagokien zati proportzionala izango da.

c) Sukaldeko eta autobusetako langileen zerbitzu-prestazioaren gehieneko epea irailaren 1etik ekainaren 30era artekoa izango da.

d) Honako hauek ez dira lanegunak izango:

- 1) Urteko igande guztiak.
- 2) Euskal Autonomia Erkidegoko jaiegunak.

3) Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak ezarritako herriko jaiak.

4) Abenduaren 24a eta 31.

5) Urte osoko larunbatak errekuiperatutako jaitzat hartuko dira.

e) Aste Santuko oporraldian, ondoz ondoko 4 lanegunetan jai hartzeko eskubidea izango da.

f) Gabonetako eskola-oporraldian, ondoz ondoko 5 lanegunetan jai hartzeko eskubidea izango da.

g) Errekuiperatutako baimen-egun bat hartzeko eskubidea izango da, eta egun hori noiznahi hartu ahal izango da, beti ere zerbitzuko premiak beteta geldituz gero.

Sukaldeko langileentzat eta kontratu finko etena dutenentzat izan ezik –urteko lanaldiari eta egutegiari dagokienez berariazko baldintzak baitituzte-, berreskuratzeko baimen-egunak zortzi izan daitezke gehienez, lan-egutegian ezarritakoari kalterik egin gabe.

Halaber, errekuiperatutako beste baimen-egun bat egongo da, herriko jaiak oporraldietan edo lanik gabeko egunetan egokitzen diren ikastetxeetan.

h) Hitzarmen hau aplikatzen zaien langileek 2 egun libre gehiago izateko eskubidea izango dute seigarren hiruurtakoa bete ondoren, eta zortzigarrenetik aurrera, hiruurtako bakoitzeko egun bat gehiago izango dute.

i) Aldi baterako ezintasun batekin batera artikulua honen e) eta f) idatz-zatietan deskribaturiko aldiak suertatzen badira, oporraldia bitarteko langileak hartuko du. Aldi baterako ezintasun-egoeran dagoen langile titularrak ez du inongo konpentsaziorik izango.

**Artículo 17.**– Calendario laboral.

El calendario laboral estará sujeto a los siguientes criterios:

a) El cómputo de trabajo efectivo anual (1 de septiembre -31 de agosto) será el establecido en el artículo 16 del Convenio, dependiendo de la jornada semanal que cada trabajador o trabajadora tenga estipulada.

b) Salvo el personal de cocina y el personal fijo discontinuo, durante el periodo del 1 de julio a 15 de septiembre se practicará la jornada intensiva de verano, que para el personal que tenga una jornada completa se establece en seis horas y media y para el resto en la parte proporcional que corresponda.

c) El periodo máximo de prestación de servicios del personal de cocina y autobús discurre entre el 1 de septiembre y el 30 de junio.

d) Serán días no laborables:

- 1) Los domingos de todo el año.
- 2) Las festividades de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- 3) Las fiestas locales establecidas por el Departamento de Justicia, Empleo y S. Social.
- 4) Los días 24 y 31 de diciembre.
- 5) Se considerarán festivos y recuperados los sábados de todo el año.

e) Durante las vacaciones escolares de Semana Santa, se tendrá derecho a disfrutar de 4 días laborables de forma ininterrumpida.

f) Durante las vacaciones escolares de Navidad, se tendrá derecho a disfrutar de 5 días laborables de forma ininterrumpida.

g) Un día de permiso recuperado, a disfrutar en cualquier fecha, siempre que queden cubiertas las necesidades de servicio.

Salvo al personal de cocina y el personal con contrato fijo discontinuo – que cuenta con condiciones específicas en cuanto a jornada anual y calendario-, los días de permiso recuperado podrán ampliarse hasta ocho, sin perjuicio de lo establecido en el calendario laboral.

Asimismo, existirá un día más de permiso recuperado, en aquellos centros de trabajo cuya fiesta local coincida con el periodo de vacaciones o día no laborable.

h) Los trabajadores y trabajadoras a quienes es de aplicación el presente convenio tendrán derecho al disfrute de 2 días de libre disposición adicionales al cumplir el sexto trienio, incrementándose en un día adicional por cada trienio cumplido a partir del octavo.

i) En el supuesto de coincidencia de una IT con los períodos descritos en los apartados e) y f) de este artículo será el personal interino quien disfrute de los mismos, no procediendo compensación alguna para el personal titular en situación de IT.

j) Ikasturte bakoitzeko lehenengo bi hilabeteen barruan, ikastetxeetako zuzendariak hitzarmen honek hartzen dituen langileen urteko lan-egutegia eta ordutegia bidaliko dituzte Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzara, hark kontrola eraman eta, Batzorde Parekideari entzunik, onar dezan. Ordutegiak aldaketaren bat behar badu, Hitzarmenaren Batzorde Parekidearen barruan egingo da.

**18. artikulua.**— Atsedeen hartzeko eta/edo bazkaltzeko tartea.

Lanaldi osoko kontratua duten langileek, Langileen Estatutuaren 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta egiten duten lanaldi etengabea kontuan harturik, 30 minutuko tartea izango dute lanaldi horren barruan, ikastetxean bertan atsedeen hartzeko eta/edo bazkaltzeko.

**19. artikulua.**— Gehiegizko orduen ordaina.

Zerbitzuaren betebeharrak direla-eta nagusiek atzeratu ezinezko aparteko lanak egitea eskatzen dietenean, langileek lanegunetan egindako gehiegizko orduak, lanean emandako ordu bakoitzeko, ordu bat eta 45 minutuko ordaina izango dute, hala izan dela egiazta- tu ondoren. Gehiegizko orduak igandean, jaiegunean edota gauetz eginez gero, lanean emandako orduko bi orduko ordaina emango da.

## II. KAPITULUA OPORRAK

**20. artikulua.**— Oporrak.

1.— Hitzarmen hau aplikatzen zaien langileek zerbitzu-urte bakoitzeko 22 laneguneko opor ordainduak izateko eskubidea izango dute, edo proportzioan dagoz- kion egunetako opor ordainduak.

Lan kontratu mugagabea duten sukaldeko langile finkoen oporraldia lan egiten duten ikastetxearen egu- tegiari eta urteko lanaldiari egokitu beharko zaio.

2.— Urtebeteko zerbitzu-aldia burutzen ez dutenen- tzat —lan-legepeko bitarteko langileak edo iraupen jakineko kontratua duten langileak, edo urtean zehar sartzen edo itzultzen diren langile finkoak direlako—, lanean hasten edo lanera itzultzen direnetik urte bereko abenduaren 31ra bitartean igarotako zerbitzu-aldiaren araberakoa izango da oporraldiaren iraupena.

3.— Oporren ordeztu, ezin izango da dirurik ordaindu, ez osorik ez zati batean, kasu hauetan izan ezik: urtean zehar langilearen lan-harremana bukatzen denean, edo langilea eszedentzian edota bere zereginetatik baztertuta dagoenean, eta oraindik oporraldia edo horren zati bat hartu ez badu.

4.— Oporrak hartzeko aldia uztailearen 1etik abuztu- aren 31ra bitartekoa izango da, eta, beraz, denboraldi

j) En los dos primeros meses de cada curso escolar se remitirán por las direcciones de los centros a la Dirección de Gestión de Personal, para su control, el calendario y horario de los trabajadores y trabajadoras afectadas por este Convenio, al objeto de que oída la Comisión Paritaria, se proceda a su autorización. Cualquier modificación que precisare el calendario se llevará a efecto en la Comisión Paritaria del Convenio.

**Artículo 18.**— Período para descanso y/o comida.

El personal que presta servicios a jornada completa, en consideración a lo dispuesto en el artículo 34 del Estatuto de los Trabajadores, en atención a la jornada continuada que desarrolla, dispondrá dentro de la misma de un período de 30 minutos para descanso y/o comida en el propio centro.

**Artículo 19.**— Compensación de horas en exceso.

Las horas en exceso realizadas por el personal en día laborable, cuando por razones del servicio les fueran encomendadas por sus superiores para la realización de tareas de carácter extraordinario e inaplazable, darán derecho, previa la oportuna justificación, a una compensación a razón de 1 hora y 45 minutos por cada hora trabajada. La compensación será de 2 horas por cada hora trabajada cuando aquéllas se realicen en domingo o festivo o durante el período nocturno.

## CAPÍTULO II VACACIONES

**Artículo 20.**— Vacaciones.

1.— El personal al que es de aplicación el presente convenio contará con el derecho a disfrutar durante cada año de servicio de una vacación retribuida de 22 días laborables o de los días que en proporción le correspondan.

El personal fijo indefinido de cocina, adecuará su período vacacional a la jornada anual establecida y al calendario escolar del centro en el que presta servicios.

2.— En los casos en que -bien por tratarse de personal laboral de interinidad o contratados y contratadas laborales de duración determinada, así como fijo que ingresa o reingresa a lo largo del año-, no se alcance el año de servicios, la duración vacacional será proporcional al tiempo de servicio transcurrido desde la fecha de su ingreso o reingreso, hasta el 31 de diciembre del mismo año.

3.— Las vacaciones no podrán ser compensadas ni en todo ni en parte en metálico excepto cuando en el transcurso del año se produzca la extinción de la relación de empleo del trabajador o la trabajadora, o sea declarado o declarada éste o ésta en la situación de excedencia o de suspensión de funciones y aún no haya disfrutado o completado en su total disfrute el período vacacional.

4.— El período vacacional estará comprendido entre el 1 de julio al 31 de agosto, disfrutándose salvando

horretan hartuko dira, beti ere zerbitzuko beharrak betetzen badira. Ikastetxeko zuzendaritzak zehaztu den epe horren barruan oporrak hartzeko baimena ukatzen badu, arrazoitu egin beharko du. Adostasunik ez bada, Batzorde Parekideak erabakiko du arazoa, hamar eguneko epean. Behar bezala egiaztatutako ohiz kanpoko kasuetan, oporretako egun guztiak edo egun batzuk irailean hartzeko baimena eman ahal izango da.

5.- Langileak 22 egun laneguneko oporraldia hartzeko eskubidea izango du, aldi baterako ezintasun-egoeran dagoenean; kasu horretan, interesdunak eta ikastetxeko zuzendaritzak adostutako egunetan hartuko dira oporrak.

### III. KAPITULUA LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

#### **21. artikulua.**– Lizentziak eta baimenak.

1.– Hitzarmen honen eraginpean dauden langileek ordaindutako lizentzia har dezakete ondoren zehazten diren arrazoiengatik eta denborarengatik:

- a) Istripu edo gaixotasunagatiko lizentzia.
- b) Haurdunaldi, erditze, edoskitze, adopzio edo harrerako lizentzia.
- c) Gurasotasuneko lizentzia.
- d) Norberaren edo senideren baten ezkontzagatiko lizentzia.
- e) Senideren baten gaixotasun larriagatiko edo heriotzagatiko lizentzia.
- f) Nahitazeko betebeharrak publikoak edo norberaren betebeharrak betetzeko lizentzia.
- g) Ohiko etxebizitzaz aldatzeko lizentzia.
- h) Ordezkaritza sindikaleko edo langile-ordezkaritzako eginkizunetan jarduteko lizentzia.
- i) Lizentzia, genero-indarkeria dela-eta.
- j) Lanpostuaren eginkizunekin zuzeneko zerikusia duten hobekuntza-ikastaroak egiteko lizentzia.

2.– Halaber, ondorengo baimenak eman ahal dira, bakoitzean ezartzen diren arauen arabera. Hauek dira baimenak:

- a) Adingabeak, ezgaituak, edo odol-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideak zaintzeko edota norberaren gaixotasunagatiko baimena.
- b) Gaixotasun kronikoren bat edo mugitzeko arazok dituzten senideei laguntzeko baimena.
- c) Lanpostuaren eginkizunekin zuzeneko zerikusirik ez duten ikasketak egiteko baimena.
- d) Azterketetan parte hartzeko baimena.
- e) Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara joateko baimena.

en todo caso las necesidades de servicio. La denegación por la dirección del centro del período vacacional que se solicite -dentro del señalado-, deberá ser motivada, resolviendo la Comisión Paritaria, de mantenerse la discrepancia, en el plazo de diez días. En supuestos excepcionales, suficientemente acreditados, podrá concederse el disfrute del período vacacional, en todo o en parte, dentro del mes de septiembre.

5.- Se tendrá derecho a disfrutar en todo caso de 22 días laborables de vacaciones cuando éstas coincidan con una IT, disfrutándose las mismas en las fechas acordadas entre el interesado o la interesada y la dirección del centro.

### CAPÍTULO III LICENCIAS Y PERMISOS

#### **Artículo 21.**– Relación de Licencias y Permisos.

1.– El personal incluido en el ámbito de este Acuerdo tendrá derecho a una licencia retribuida por el tiempo y motivos que a continuación se detallan:

- a) Licencia por enfermedad o accidente.
- b) Licencia por embarazo, alumbramiento, lactancia, adopción y acogimiento.
- c) Licencia por paternidad.
- d) Licencia por matrimonio propio o de parientes.
- e) Licencia por enfermedad grave o fallecimiento de parientes.
- f) Licencia por deberes inexcusables de carácter público y personal.
- g) Licencia por traslado o mudanza del domicilio habitual.
- h) Licencia por ejercicio de funciones de representación sindical o de personal.
- i) Licencia por razón de violencia de género.
- j) Licencia por realización de estudios de perfeccionamiento profesional directamente relacionados con la función o puesto de trabajo desempeñado.

2.– Asimismo podrán concederse los permisos que a continuación se describen y de acuerdo con las normas que con ellos se establecen. Éstos son:

- a) Permiso para cuidado de menores o personas discapacitadas o pariente hasta el segundo grado de consanguinidad o enfermedad propia.
- b) Permiso para atender a familiares con enfermedad crónica o problemas de movilidad.
- c) Permiso para realización de estudios no directamente relacionados con la función o puesto de trabajo desempeñado.
- d) Permiso para la concurrencia a exámenes.
- e) Permiso para acudir a consultas, tratamientos y exploraciones de tipo médico.

f) Zientzia-, teknika-, lanbide-, elkargo-, elkarte- eta sindikatu-izaerako gertakizun kolektiboetara joateko baimena.

g) Baimena hautetsia izatearren.

h) norberaren eginkizunetarako baimena.

**22. artikulua.**– Lizentzien eta baimenen arteko bateraezintasuna.

Edoskitzaroko etenaldia eta adingabekoak, elbarri fisikoak, psikikoak edo sentsorialak, edota odol-ahai-detasunezko bigarren mailara arteko senideak zaintzeko lanorduen murrizketa bateragarriak direnean izan ezik, ezin izango da inoiz ere aurreko artikuluan adierazitako lizentzia edo baimen bat baino gehiagoz baliatu aldiko. Oporraldiak dirauen artean, ezin izango da ordainduta-ko lizentziaz edo baimenez baliatu.

**23. artikulua.**– Lanpostura itzultzea.

Lizentzia eta baimena hartzeko denbora bukatu ondoren, langileek berehala itzuli beharko dute dagokien lanpostura.

**24. artikulua.**– Istripu edo gaixotasunagatiko lizentzia.

1.– Langileek lizentzia hartzeko eskubidea izango dute, gaixorik daudenean edo istripuren bat izan dute-nean, eta, ondorioz, beren jardunak behar bezala egiteko ezgaituta daudenean –beti ere, hori horrela dela egiaztatzeko, mediku-zerbitzuek egindako baja aurkezten badute–, harik eta medikuak alta eman arte. Hala ere, ezin izango da kontratuaren gehieneko iraupena inolaz ere gainditu.

2.– Administrazioak, Enpresako Osasun Zerbitzuak egindako mediku-azterketaren bidez, langilearen gaixotasunaren edota istripuaren jarraipena egin eta haren osasun-egoera egiazta dezake, egoeraren berri jakiteko, behar den laguntza emateko eta langilea lehenbailehen erabat sendatu dadin lortzeko. Langileak horrelako azterketak ez baditu egin nahi, jasotzen dituen laguntza ekonomiko osagarriak gal ditzake, entzunaldiaren izapidea idatziz egin ondoren.

3.– Gaixotasuna edo istripua dela-eta lanerako ezintasun iragankorreko egoeran dauden langileek ordain-sarien % 100 jasoko dute, gehienez 18 hilabetetan.

Hemezortzi hilabeteko gehienezko epea agortu ondoren, eta denbora horretan langileak baliaezintasun iraunkorraren mailaren bat onar dakiola eskatu baldin badu, aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa jasotzeko eskubidea izango du, harik eta medikuaren alta jaso arte, baliaezintasuneko edo heriotzako adierazpenarekin edo hura gabe. Baliaezintasun iraunkorra onartzen bazaio, bai ezintasun iraunkor osoa, bai erabateko ezintasun iraunkorra, bai eta baliaezintasun handia ere, aipaturiko eskubidea Gizarte Segurantzako Institutu

f) Permiso asistencia a eventos colectivos de carácter científico, técnico, profesional, colegial, asociativo o sindical.

g) Permiso por cargo electivo.

h) Permisos por asuntos propios.

**Artículo 22.**– Incompatibilidad entre Licencias y Permisos.

Salvo en el supuesto de compatibilidad entre la pausa para lactancia y la reducción de la jornada para el cuidado de menores o personas con discapacidad física, psíquica o sensorial o pariente hasta segundo grado de consanguinidad, en ningún otro caso podrá simultanearse el disfrute de más de una de las modalidades de licencias y permisos previstos en el artículo anterior. Durante el período de disfrute de las vacaciones reglamentarias no se podrá hacer uso de las licencias o permisos retribuidos.

**Artículo 23.**– Reincorporación al puesto de trabajo.

Transcurrido el período de disfrute de las licencias y permisos correspondientes los trabajadores y trabajadoras deberán reintegrarse inmediatamente a sus respectivos puestos de trabajo.

**Artículo 24.**– Licencia por enfermedad o accidente.

1.– Los trabajadores y trabajadoras, en los supuestos de enfermedad o accidente que les incapacite para el normal desarrollo de sus funciones, siempre y cuando este extremo venga avalado por baja de los servicios de la asistencia sanitaria, tendrán derecho a licencia hasta la alta médica correspondiente, sin perjuicio de no superar el período máximo de contratación determinado.

2.– La Administración, mediante reconocimiento del Servicio Médico de Empresa, podrá hacer el seguimiento y verificar el estado de enfermedad o accidente del trabajador o trabajadora, al objeto de conocer el mismo, prestarle la ayuda necesaria y conseguir su total y pronta recuperación. La negativa del trabajador o trabajadora a dichos reconocimientos podrá acarrear la pérdida de los auxilios económicos complementarios, previo trámite de audiencia por escrito.

3.– En caso de Incapacidad Transitoria de enfermedad o accidente, los trabajadores y trabajadoras percibirán el 100% de las retribuciones, hasta el tope máximo de 18 meses.

Agotado el período máximo de 18 meses y siempre que durante el mismo el trabajador o la trabajadora hubiera solicitado la declaración de algún grado de invalidez permanente, tendrá derecho a la percepción del importe señalado en el párrafo anterior hasta que fuera dado o dada de alta médica con o sin declaración de invalidez o fallecimiento. En los supuestos en que fuera declarada la invalidez permanente en los grados de incapacidad permanente total, absoluta o gran invalidez, el citado derecho se extenderá hasta el día anterior a la

Nazionalaren (GSIN) ebazpenean adierazitako diru-ondorioen egunaren bezpera arte luzatuko da.

Hori dela-eta, eskubide hori gauzatzeko eskaera hila-beteko epe luzaezinean aurkeztu behar da, epea altaren egunetik edo baliaezintasun-maila onartzen duen ebazpena jakinarazten den egunetik edo, sendatzeko aukerak badaude, baliaezintasuna ukatzen duen ebazpena jakinarazten den egunetik edo heriotzako egunetik hasita.

Baliaezintasuna 18 hilabeteko epea bukatu ondoren eskatzen bada, gorago aipatutako zenbatekoa jasotzeko eskubidea eskaera egiten den egunetik aurrera baizik ezin izango zaio aitortu.

4.– Istripu edo gaixotasunagatik lizentziarekin dagoela langileak bere edo beste inoren konturako lanak egiten baditu, aurreko idatz-zatian ezarritako zenbatekoa eskuratzeko eskubidea galduko du, eta, arrazoi horregatik diru-kopururen bat jaso badu ordurako, itzuli egin beharko dio Administrazioari hilabeteko epean, nolahi ere, diziplinako espedientea ireki dakioko.

5.– Gaixoaldia edo istripu-aldia borondatez eta arrazoirik gabe luzatzen duen langileak diziplinazko erantzukizuna izango du, besteak beste, eta bigarren idatz-zatian ezarritako zenbatekoa eskuratzeko eskubidea galduko du.

**25. artikulua.**– Haurdunaldi, erditze, edoskitze, adopzio edo harrerako lizentzia.

1.– Hitzarmen hau aplikatzen zaien irakaskuntza publikoko emakume langilek haurdunaldiko eta erditzeko lizentzia har dezakete. Lizentziak hemezortzi asteko iraupena izango du, etenik gabe, eta bi aste luza daiteke jaioberria ezgaitua bada edo erditze multiplea izaten bada, seme-alaba bakoitzeko, bigarrenetik aurrera.

Interesdunak aukeratuko du denboraldia nola banatu, baina umea egin eta berehala sei aste hartu beharko ditu. Ama zentzen bada, beste gurasoak hartu ahal izango ditu baimeneko egun guztiak edo, baimena hasita badago, gelditzen diren egunak.

Hala ere, amak erditu ondoren nahitaez hartu beharreko nahitaezko atsedendialdi dagozkion hilabetei kalterik egin gabe, biek lan egiten badute, amatasunagatik atsedendia hastean, amak erabakiko du biek batera edo elkarren segidan hartuko duten erditze ondoko atsedendia horren etenik gabeko tarte zehatz bat. Beste gurasoak hasieran laga zuen amatasunagatik lizentziaren zatiaz gozatzen jarraitu ahal izango da, ama aldi baterako ezintasun-egoeran egon arren. Atsedendialdiak aldi berean hartzen badira, atsedend-egunen batuketa egitean, ez da aurreko ataletan ezarritako hemezortzi aste muga gaindituko. Orobat, erditze multiplea izanaz gero, ez dira horri dagozkion asteak gaindituko.

fecha de efectos económicos expresada en la resolución del INSS.

A este objeto, la solicitud para hacer efectivo este derecho habrá de ser formulada en el improrrogable plazo de un mes a contar desde la fecha de alta o de notificación de la resolución declarativa del grado de invalidez, o en su caso, denegatoria de la misma por ser previsible su curación, o de la fecha del óbito.

Si la declaración de invalidez hubiera sido instada una vez transcurrido el plazo señalado de 18 meses, solamente podrá ser reconocido el derecho a la percepción del mencionado importe a partir del día en que se produjo aquella solicitud.

4.– En los casos en que durante el disfrute de la licencia por enfermedad o accidente, el personal realizase trabajos por cuenta propia o ajena, perderá el derecho a la percepción del importe establecido en el apartado anterior, habiendo de restituir a la Administración en el plazo de un mes las cantidades indebidamente percibidas por este motivo, sin perjuicio de la incoación del correspondiente expediente disciplinario.

5.– Quien prolongue voluntaria e injustificadamente el estado de enfermedad o accidente, con independencia de cualesquiera otras responsabilidades, incurrirá en responsabilidad disciplinaria y perderá el derecho a la percepción del importe establecido en el apartado segundo.

**Artículo 25.**– Licencia por embarazo, alumbramiento, lactancia, adopción y acogimiento.

1.– Las trabajadoras a las que es de aplicación el presente convenio tienen derecho a disfrutar de la correspondiente licencia por embarazo y alumbramiento con duración limitada a dieciocho semanas ininterrumpidas, ampliables en dos semanas más en los casos de discapacidad del hijo o hija, y en los de parto múltiple por cada hijo o hija a partir del segundo.

Este período podrá ser distribuido a opción de la interesada, siempre que seis semanas sean inmediatamente posteriores al parto. En caso de fallecimiento de la madre, el otro progenitor podrá hacer uso de la totalidad o, en su caso, de la parte que reste del permiso.

No obstante lo anterior, y sin perjuicio de las semanas inmediatas posteriores al parto de descanso obligatorio para la madre, en el caso de que ambos progenitores trabajen, la madre, al iniciarse el período de descanso por maternidad, podrá optar por que el otro progenitor disfrute de una parte determinada e ininterrumpida del período de descanso posterior al parto, bien de forma simultánea o sucesiva con el de la madre. El otro progenitor podrá seguir disfrutando de la parte de licencia por maternidad inicialmente cedida, aunque la madre se encuentre en situación de Incapacidad Temporal. En los casos de disfrute simultáneo de períodos de descanso, la suma de los mismos no podrá exceder de las dieciocho semanas previstas o de las que correspondan en caso de parto múltiple.

Erditze ondoren edo jaio ondoren 30 egunen barruan jaioberria ospitaleratu beharko balitz, amatasunagatik lizentzia ospitalizazio-aldiak irauten duen beste luzatuko da, gehienez 13 astez.

Lizentziako denboraldi osoa bukatu ondoren, koadro klinikoa ikusita emakume langileak lana behar bezala burutzeko eragozpenak baditu, aldi baterako ezintasuneko baja hartuko du, horretarako behar diren izapideak egin ondoren.

2.- Adingabekoren baten adoptatuz gero edo, adopzio aurretik nahiz modu iraunkorrean, hartuz gero, langileak hemezortzi aste jarraian hartzeko lizentziarako eskubidea izango du; epe hori bi aste luzatu ahalko da adingabekoa ezgaitua bada eta beste bi aste, seme-alaba bakoitzeko, bigarrenetik hasita, adopzioa edo harrera multiplea bada. Interesdunak hala nahi izanez gero, denboraldi hori harrerari buruzko administrazio-erabakia edo erabaki judiziala ematen denetik edo adopzioa eratu duen ebazpen judiziala ematen denetik hasiko da zenbatzen. Biek lan egiten badute, nahi duten moduan banatuko dute baimena, eta, horrenbestez, aldi berean edo elkarren segidan hartu ahal izango dute, baina etenik gabeko denboraldiak egin beharko dituzte beti. Atsedenaldiak aldi berean hartzen badira, atsedenez egunen batuketa egitean, ez da aurreko ataletan ezarritako hemezortzi aste muga gaindituko. Orobat, adopzio edo harrera multiplea izanez gero, ez dira horri dagokion asteak gaindituko.

Haurra atzerrian adoptatuz gero, gurasoek adoptatu nahi duten haurraren jaioterrira aurrez joan behar badute, atal honetan ezartzen diren baimenak adopzioa gauzatzen duen ebazpena eman baino lau aste lehenago ere hasi ahal izango dira. Gainera, interesdunek gehienez 2 hilabeteko baimenaz gozatzeko baimena izango dute xede horretarako eta denboraldi horretan oinarriko ordainsariak bakarrik jasoko dituzte.

3.- Aurreko idatz-zatietan araututakoarekin bat etorritik, aitak dagokion baimenetik gutxienez lau aste hartzea erabakitzen badu, eskubide izango du, horrez gain, bi aste gehiagoz gozatzeko.

4.- Oporraldia eta haurdunaldi, erditze, edoskitze, adopzio edo harrerako lizentzia-aldia elkartzeko modukoak izango dira, nahiz eta oporraldiari dagokion egutegiko urtea amaiturik egon.

5.- Era berean, emakume langileak lanean ordubeteko etenaldia egiteko eskubidea du hamar hilabete baino gutxiagoko seme-alaba bakoitzeko; denbora hori bi zatitan bana dezake bularra edo biberioa emateko. Emakumeak, hala nahi badu, eskubide horren orde zaharlanaldia ordubetez murriz dezake, helburu bererako bada. Baimen hau proportzionalki luzatuko da erditze anitzeko kasuetan.

Edoskitzea artifiziala denean, lan-jardunaldian etenaldia egiteko edo lanaldia gutxitzeko eskubidea aitari

En el caso de neonato hospitalizado a continuación del parto o en el plazo máximo de 30 días desde el nacimiento, la licencia por maternidad se ampliará por el periodo de hospitalización del menor con el límite de 13 semanas.

Si una vez agotado el período total de la licencia la mujer trabajadora presentase un cuadro clínico que le impidiera la reincorporación al normal desempeño de su trabajo, pasará a la situación de baja por IT, debiendo observar, al efecto, los trámites preceptivos.

2.- En los supuestos de adopción o acogimiento, tanto preadoptivo como permanente, de menores, el trabajador o trabajadora tendrá derecho a una licencia de dieciocho semanas ininterrumpidas, ampliables en dos semanas más en los casos de discapacidad de el o la menor, y en dos semanas más por cada hijo o hija a partir del segundo, en el supuesto de adopción o acogimiento múltiple. Se contarán, a elección del interesado o interesada, bien a partir de la decisión administrativa o judicial de acogimiento, bien a partir de la resolución judicial por la que se constituya la adopción. En caso de que ambos progenitores trabajen, el permiso se distribuirá a opción de las y los interesados, que podrán disfrutarlo de forma simultánea o sucesiva, siempre en períodos ininterrumpidos. En los casos de disfrute simultáneo de períodos de descanso, la suma de los mismos no podrá exceder de las dieciocho semanas previstas o de las que correspondan en caso de adopción o acogimiento múltiple.

En los supuestos de adopción internacional, cuando sea necesario el desplazamiento previo de los progenitores al país de origen del adoptado o de la adoptada, los permisos previstos en este apartado podrán iniciarse hasta cuatro semanas antes de la resolución por la que se constituya la adopción. Además, las personas interesadas tendrán derecho a un permiso de hasta 2 meses con esa finalidad, durante el que únicamente percibirán las retribuciones básicas.

3.- Si conforme a lo regulado en los apartados anteriores el padre hiciera uso de al menos cuatro semanas de permiso, tendrá derecho, además, al disfrute adicional de otras dos semanas.

4.- El período de disfrute de vacaciones podrá ser acumulado por la trabajadora a la licencia por embarazo, alumbramiento, lactancia, adopción y acogimiento, aun habiendo expirado ya el año natural a que tal período corresponda.

5.- Asimismo, la trabajadora tendrá derecho a una pausa de una hora en su trabajo por cada hijo o hija menor de diez meses, que podrá dividir en dos fracciones cuando la destine a la lactancia natural o artificial. La mujer, por su voluntad, podrá sustituir este derecho por una reducción de la jornada ordinaria de trabajo en una hora con la misma finalidad. Este permiso se incrementará proporcionalmente en los casos de parto múltiple.

El derecho a la pausa o reducción en la jornada laboral para el caso de lactancia artificial podrá hacerse

pasatu ahal zaio, aitak eskatzen badu, eta, amak lan egiten duela egiaztatu ondoren, amak lizentziako esku-bideari uko egiten diola edo ezin dela lizentziaz baliatu ziurtatzen badu.

Emakume langileak aurreko paragrafoan azaldutako lizentziari eustea, edo denbora hori haurdunaldi, erditze eta edoskitzeko lizentziari gehitzea izango du aukeran. Gehituz gero, 6 ordu izango dira lanegun bakoitzeko. Dena dela, horretarako kontuan har daitezkeen orduak benetako lanegunetakoak dira. Hori dela-eta, langileak, lizentzia eskatzerakoan, hamargarren hilabetea bete artean geratzen den garaian, lizentziak, baimenak, opor-rrak edo lan-utzialdiak hartzeko asmoa duen adierazi behar du, tarte horiek guztirakotik kendu ahal izateko.

6.– Administrazioak sorospen osagarriak ordainduko ditu, enpleguak lansariaren % 100 jaso dezan amatasun egoeran dagoen bitartean.

**26. artikulua.**– Aita-lizentzia.

Aitak edo beste gurasoak etenik gabeko 15 egun naturaleko lizentzia jasotzeko eskubidea izango du jaiotza, adopzio edo harreragatik. Lizentzia hori, nolahi ere, haurra jaiotzen denetik edo ebazpen judiziala edo administrazio-ebazpena ematen denetik hasiko da, lanaldi osoan.

Administrazioak GSINak ematen duen aitatasuneko prestazioa osatzeko laguntzak ordainduko ditu interesdunak lansariaren % 100a jaso dezan denboraldi horretan. Prestazio ekonomikoetarako eskubiderik ez badu, Administrazioak ez du inolako ordainketarik egingo, lizentzia baimentzearen kaltetan izan gabe.

**27. artikulua.**– Norberaren edo senideren baten ezkontzagatiko lizentzia.

1.– Langileak 20 egutegi-eguneko lizentzia izango du ezkontzeko. Lizentzia ezkontza ospatu baino lehen edo ospatu ondoren hartu ahal izango da, baina, edonola ere, ezkontzaren eguna epealdiaren barruan geratuko da.

Lizentzia hori oporraldiari gehitu ahal zaio aurretik zein atzetik; horrela eginez gero, dagokion lurralde-ordetzkaritzari adierazi behar zaio, gutxienez 15 egun lehenago.

2.– Era berean, bikoteko bizikidetzaren egonkorrean (ezkontzaz kanpoko elkarketetan) hasten den langileak lizentzia honetaz baliatzeko eskubidea izango du, beti ere bikoteko bizikidetzaren frogatzen badu, bizi diren tokiko udalaren bizikidetzako ziurtagiria edo, Elkarteta Zibilen Udal Erregistroa balego, horrek emandako egiaztagiria aurkeztuz.

Hitzarmen honek indarra hartu eta gero bizikidetzaren egonkorrean hasten diren langileentzat baino ez da izango lizentzia hau.

extensivo al padre, previa solicitud y justificación por parte de éste, que deberá acreditar la condición de trabajadora de la madre y su renuncia o imposibilidad para disfrutar de la licencia.

La trabajadora podrá optar entre hacer uso de la licencia a que se refiere el párrafo anterior o acumular el tiempo resultante a la licencia por embarazo y alumbramiento acumulando el tiempo resultante, a razón de 6 horas por cada día laborable. Ha de tenerse en cuenta que únicamente serán computables a estos efectos, las horas correspondientes a días que fueran susceptibles de prestación efectiva de servicios. Por ello, en el momento de su solicitud, la trabajadora habrá de comunicar si en el tiempo que resta hasta el cumplimiento del décimo mes solicitará el disfrute de licencias, permisos, vacaciones o excedencias, al objeto de proceder a la exclusión de estos períodos del cómputo.

6.– La Administración abonará los auxilios complementarios para que la empleada perciba el 100% de las retribuciones durante la situación de maternidad.

**Artículo 26.**– Licencia por paternidad.

El padre o el otro progenitor tendrá derecho a una licencia de 15 días naturales ininterrumpidos por nacimiento, adopción o acogimiento, que se disfrutará en todo caso desde la fecha de nacimiento o de la resolución judicial o administrativa en régimen de jornada completa.

La Administración abonará los auxilios complementarios a la prestación de paternidad del INSS para que la persona interesada perciba el 100% de las retribuciones durante ese periodo. Cuando no tenga derecho a las prestaciones económicas, la Administración no realizará ningún abono, sin perjuicio de autorizar la licencia.

**Artículo 27.**– Licencia por matrimonio propio o de parientes.

1.– Por razón de matrimonio propio, el trabajador o trabajadora tendrá derecho a una licencia de 20 días naturales de duración que podrá disfrutar con anterioridad o posterioridad a su celebración, incluyendo dicha fecha en ese periodo.

Esta licencia se podrá acumular al período vacacional con anterioridad o posterioridad a su disfrute, comunicándolo con un plazo mínimo de 15 días de antelación a la Delegación Territorial correspondiente.

2.– Igualmente tendrá derecho a esta licencia el trabajador o trabajadora que inicie una convivencia estable en pareja (uniones no matrimoniales), siempre que se acredite mediante certificado de convivencia expedido por el Ayuntamiento del Municipio donde las personas convivientes estuvieran domiciliadas, o en su caso mediante certificación de Registro Municipal de Uniones Civiles, cuando éste existiera.

Únicamente podrá disfrutar esta licencia el personal cuya convivencia estable se inicie con posterioridad a la entrada en vigor del convenio.

Ezkontza edo bizikidetzaren egonkorra dela-eta, ezin izango da beste lizentzia bat hartu 6 urte igaro arte eta inolaz ere ez bikoteko kideak berberak direnean.

3.– Ezkontza langilearen gurasoena, aita-amaginarrebena, neba-arrebena, suhi-errainena, seme-alabena, ilobena edo aitona-amonena denean, langileak ezkontza-eguna izango du libre, baina, ospakizuna langilearen bizilekutik 150 km baino urrutiago egiten bada, hiru egutegi-egun emango dira libre, joan-etorriak arintze aldera.

**28. artikulua.**– Senideren baten gaixotasun larriagatik edo heriotzagatik lizentzia.

1.– Langileak arrazoi honengatik har dezakeen lizentziaren iraupen-aldiak honako hauek dira: odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen heriotzagatik, edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideen heriotzagatik, 3 lanegun; eta ezkontzidearen, bikotekidearen edo seme-alabaren egiazaturiko gaixotasun larriagatik edo heriotzagatik, 5 lanegun. Bi lanegun izango ditu odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen egiazaturiko gaixotasun larriagatik edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideen gaixotasun larriagatik.

2.– Aipaturiko lizentzia-aldiei 2 egun natural gehiago gehituko zaizkie, gertakizunak langilearen ohiko bizilekutik 150 km baino urrutiago gertatzen badira.

3.– Odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen egiazaturiko gaixotasun larri kasuan, edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideen egiazaturiko gaixotasun larri kasuan, epealdi berdineko beste lizentzia bat hartzeko eskubidea izango du langileak, lehenengo lizentzia bukatzen denetik ondoko ondoko 30 egun igaro ondoren. Behar bezala egiaztatutako azken-buruko gaixotasunen kasuan, berriz, ez da 30 eguneko epea egongo, eta ezin izango da erabili ohiko bizitokiko distantziagatik luzeapena.

Langileak odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen egiazaturiko gaixotasun larri kasuan, edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideen egiazaturiko gaixotasun larri kasuan, epealdi berdineko beste lizentzia bat hartzeko eskubidea izango du langileak, lehenengo lizentzia bukatzen denetik ondoko ondoko 30 egun igaro ondoren. Behar bezala egiaztatutako azken-buruko gaixotasunen kasuan, berriz, ez da 30 eguneko epea egongo, eta ezin izango da erabili ohiko bizitokiko distantziagatik luzeapena.

4.– Batzorde Parekideak ezarriko ditu irizpideak gaixotasun larri zer den zehazteko. Zalantzak daudenean, Prebentzio Zerbitzuko Arlo Medikuak larritzat hartzen dituen gaixotasunak joko dira horrelakotzat.

No cabrá disfrutar nueva licencia por matrimonio o inicio de convivencia estable hasta tanto haya transcurrido un período de 6 años, y en ningún caso cuando los miembros que forman la pareja sean los mismos.

3.– Cuando el matrimonio lo contraigan padres, madres, padres y madres políticos, hermanos y hermanas, hermanos políticos y hermanas políticas, hijos e hijas, nietos y nietas o abuelos y abuelas del el trabajador o trabajadora, éste o ésta tendrá derecho a una licencia de un día natural, en la fecha de la celebración que se ampliará a 3 días naturales si la celebración se efectuase a más de 150 km del lugar de residencia del el trabajador o trabajadora, al objeto de facilitar el desplazamiento.

**Artículo 28.**– Licencia por enfermedad grave o fallecimiento de parientes.

1.– La licencia a que tienen derecho la trabajadora o el trabajador por este concepto, contiene los siguientes periodos de duración: 3 días laborables por fallecimiento de familiares hasta 2.º grado de consanguinidad y afinidad, o aún de grado más lejano si mediara convivencia, y 5 días laborables por enfermedad grave justificada o fallecimiento del cónyuge, compañero, compañera, hijo o hija. Por enfermedad grave justificada de familiares hasta 2.º grado de consanguinidad y afinidad, o aún de grado más lejano si mediara convivencia, se dispondrá de dos días laborables.

2.– Los citados períodos de licencia se ampliarán en 2 días naturales más, si los hechos motivados se produjeran a más de 150 km del lugar de residencia habitual de la trabajadora o del trabajador.

3.– En los casos de enfermedad grave justificada de familiares hasta 2.º grado de consanguinidad o afinidad, o aún de grado más lejano si mediara convivencia, el personal tendrá derecho a una segunda licencia, por el mismo período de duración, pasados 30 días consecutivos desde la finalización de la primera licencia, a excepción del supuesto de que se trate de enfermedades terminales debidamente acreditadas en que no jugará el citado plazo de 30 días, sin que sea de aplicación, en este caso, la ampliación por dista.

En el caso de acogerse al permiso de enfermedad grave justificada de familiares de consanguinidad o afinidad hasta 2.º grado, o aún de grado más lejano si mediara convivencia, si durante la duración del mismo se produjese el fallecimiento de la persona enferma, se contabilizarán a partir de la fecha los días correspondientes al permiso de defunción.

4.– La Comisión Paritaria establecerá los criterios para determinar qué se debe entender por enfermedad grave. En los supuestos que pudieran plantear dudas, se entenderá por tal la así considerada por el Área Médica del Servicio de Prevención.



5.– Artikulu honetan araututako lizentzietarako ezarritako lanegunak horiek emateko arrazoi diren kasuak gertatzen diren egunetan hartu beharko dira.

**29. artikulua.**– Nahitaezko betebeharrak publikoak edo norberaren betebeharrak betetzeko lizentzia.

1.– Ezinbestez bete behar diren betebeharrak publikoak edo norberaren betebeharrak egiteko, behar beste denbora izango dute langileek, baldin eta lanorduetatik kanpo egiterik ez badago.

2.– Akordioari dagokionez, hurrengoak hartuko dira nahitaezko betebeharrak publikotzat eta norberaren betebeharratzat:

a) Epaitegien, komisarien, gobernu zibilen edo militarren zitazioak, ikuskapen militarrek edo arma-ikuskapenak, NAN, pasaporteak, egiaztagiria eta erregistro-izapideak erakunde ofizialetan.

b) Elbarri fisikoak edo psikikoak diren odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideei izapide zehatzak egiten laguntzea.

c) Gida-baimena eskuratzeko edo berritzeko azterketa.

d) Notarioen errekerimenduak eta izapideak.

e) Erakunde ofizialetan egin beharreko izapideak.

f) Zinegotzi, ahaldun, batzarkide edo legebiltzarkide gisako hautetsi legez, gobernu-organoen eta berauen menpeko batzordeen bileretara joatea.

**30. artikulua.**– Ohiko etxebizitzaz aldatzeko lizentzia.

Langileak ohiko bizilekuaz aldatu behar duenean, 2 laneguneko lizentzia hartzeko eskubidea izango du. Errolda-ziurtagiriaz egiaztatu beharko du hori. Baimen hau erroldatze berriaren unetik hilabeteko epearen barruan erabili ahal izango da.

**31. artikulua.**– Ordezkaritza sindikaleko edo langile-ordezkaritzako eginkizunetan jarduteko lizentzia.

Sindikatuaren edo langileriaren ordezkatzaile lanak egiten dituzten langileek horri dagokion lizentzia hartzeko eskubidea izango dute, indarrean dagoen araudiaren eta hitzarmen honetan jasotako hizbaketen arabera.

**32. artikulua.**– Lizentzia, genero-indarkeria dela eta.

Genero-indarkeriaren biktima diren langileek, lanaldi osoan nahiz zati batean, lanean huts egiten dutenean, huts horiek justifikatutakotzat joko dira arretarako gizarte zerbitzuetan edo osasun-zerbitzuetan erabakitzen duten denboraz eta baldintzez.

5.– El disfrute de los días laborables objeto de la concesión de las licencias reguladas en el presente artículo, habrá de tener lugar necesariamente en las fechas en que se produzcan los supuestos de hecho que las motivan.

**Artículo 29.**– Licencia por cumplimiento de deberes inexcusables de carácter público o personal.

1.– Para el cumplimiento de deberes inexcusables de carácter público o personal, las trabajadoras y trabajadores tendrán derecho a una licencia por el tiempo necesario para su cumplimiento, siempre y cuando no pueda efectuarse fuera del horario de trabajo.

2.– En todo caso, a los efectos del Acuerdo se considerarán deberes inexcusables de carácter público o personal los siguientes:

a) Citaciones de juzgados, comisarías, gobiernos civiles o militares, revista de armas, DNI, pasaporte, certificados y registros en centros oficiales.

b) Acompañamiento a parientes con discapacidad psíquica o física, hasta 2º grado de consanguinidad o afinidad a la realización de trámites puntuales en razón de su estado.

c) Examen o renovación del carnet de conducir.

d) Requerimientos y trámites notariales.

e) Trámites necesarios en organismos oficiales.

f) La asistencia a las reuniones de los órganos de gobierno y comisiones dependientes de los mismos de que formen parte en su calidad de cargo electo como concejal o concejala, diputado o diputada, juntero o juntera, o parlamentario o parlamentaria.

**Artículo 30.**– Licencia por traslado o mudanza del domicilio habitual.

Con motivo de efectuarse el traslado o mudanza del domicilio habitual de una trabajadora o de un trabajador, ésta o éste tendrá derecho a una licencia de 2 días laborables de duración, justificándolo con certificado de empadronamiento. El permiso se disfrutará en el plazo de un mes desde el momento del nuevo empadronamiento.

**Artículo 31.**– Licencia por ejercicio de funciones de representación sindical o del personal.

Las trabajadoras y trabajadores que ejerzan funciones de representación sindical o del personal, tendrán derecho a disfrutar de la correspondiente licencia, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente y estipulaciones contenidas en el presente Convenio.

**Artículo 32.**– Licencia por razón de violencia de género.

Las faltas de asistencia de los trabajadores y trabajadoras víctimas de violencia de género, totales o parciales, tendrán la consideración de justificadas por el tiempo y en las condiciones en que así lo determinen los servicios sociales de atención o de salud según proceda.

Era berean, generoaren aurkako indarkeriaren biktime diren langileek, babesu jasotzeko edo gizarte-arreta integralerako eskubidea egikaritzeko, lanaldia murriztu ahaliko dute, ordainsaria hein berean murriztuta, edo lan-denbora berriro antolatu ahaliko dute, ordutegia moldatuta, ordutegi malguaz baliatuta edo lan-denbora antolatzeko beste formula batzuk aplikatuta, halakoetan administrazio publiko eskudunak kasuan kasu ezartzen dituen baldintzetan.

**33. artikulua.**– Langileak betetzen dituen eginkizun edo lanpostuari zuzenean lotutako lanbide hobekuntzako ikasketak egiteko lizentzia.

Lizentzia hau ematea hautazkoa da, eta, hura erabiliz gero, dagozkion ordainsariak jasoko dira.

**34. artikulua.**– Adingabeak, ezgaituak, edo odol-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideak zainatzeko edota norberaren gaixotasunagatik baimena.

Legez agindutako zaintza duelako, langileak zuzenean bere ardurapean hamabi urtetik beherako adingabekoren bat, edo ordaindutako lanik egiten ez duen ezgaitu fisikoren, psikikoren edo sentsorialen bat, edo larriki gaixotuta dagoen eta berarekin bizi den odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideren bat –edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideren bat– badu, edo, halaber, langilea bera gaixotzen bada, orduan, lanaldi arrunta murrizteko baimena eskatu ahal izango du. Murrizketa hori lanegunaren hereneko izango da gutxienez edo erdikoa gehienez, eta lansariaren atal guztien heineko beherapena ekarriko du bere baitan.

**35. artikulua.**– Gaixotasun kronikoren bat edo mugitzeko arazoak dituzten senideei laguntzeko baimena.

Langile finkoak edo lanpostu hutsa betetzen ari denak mugitzeko arazoak dituen edo gaitz larri jarraituren bat –txosten medikuaren bidez behar bezala egiaztatutakoa– duen odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideren bat edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideren bat zaindu behar badu, langileak ordaindutako berrogeita hamar ordu arteko baimena izango du ikasturte bakoitzeko. Oro har, ordu-kreditu hori erabiltzeko egunean har daitekeen denbora bi ordu izango dira gehienez, eta ordu horiek lanera sartzearekin edo lanetik irtetearekin batera erabili beharko dira.

**36. artikulua.**– Lanpostuaren eginkizunekin zuzenean zerikusirik ez duten ikasketak egiteko baimena.

Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak baimen hori eman dezake, ikasturte luzaezin bateko ordainsariei berriaz uko egin ondoren.

Asimismo, los trabajadores y trabajadoras víctimas de violencia de género, para hacer efectiva su protección o su derecho de asistencia social integral, tendrán derecho a la reducción de la jornada con disminución proporcional de la retribución, o la reordenación del tiempo de trabajo, a través de la adaptación del horario, de la aplicación del horario flexible o de otras formas de ordenación del tiempo de trabajo que sean aplicables, en los términos que para estos supuestos establezca la Administración Pública competente en cada caso.

**Artículo 33.**– Licencia por realización de estudios de perfeccionamiento profesional directamente relacionados con la función o puesto de trabajo desempeñado.

La concesión de esta licencia tendrá carácter potestativo y su disfrute dará lugar a la percepción de las retribuciones correspondientes.

**Artículo 34.**– Permiso para cuidado de menores o personas discapacitadas o pariente hasta el segundo grado de consanguinidad o enfermedad propia.

La trabajadora o el trabajador que, por razones de guarda legal, tenga a su cuidado directo algún o alguna menor de doce años o persona con discapacidad física, psíquica o sensorial que no desempeñe actividad retribuida, o familiar hasta 2.º grado de consanguinidad o afinidad –aún de grado más lejano si mediara convivencia– que padezca enfermedad grave continuada y conviva con la misma o el mismo o enfermedad propia en términos ajenos a lo establecido para la correspondiente licencia, podrá solicitar un permiso consistente en una reducción de la jornada ordinaria de trabajo, en un tercio o en la mitad de su duración, con la consiguiente reducción proporcional de sus retribuciones en todos sus conceptos.

**Artículo 35.**– Permiso para atender a familiares con enfermedad crónica o problemas de movilidad.

El personal fijo o en cobertura de vacante que tenga que atender o cuidar a un o una familiar hasta 2.º grado de consanguinidad o afinidad, o aún de grado más lejano si mediara convivencia, por tener dificultades de movilidad o padecer una enfermedad grave continuada, acreditada por informe médico, dispondrá de un permiso retribuido de hasta cincuenta horas por curso escolar. Con carácter general, el tiempo máximo de uso diario de este crédito horario será de dos horas y su disfrute habrá de realizarse siempre coincidiendo con alguna de las entradas o salidas al trabajo.

**Artículo 36.**– Permiso para realización de estudios que se refieran a materias no directamente relacionadas con las funciones o puesto de trabajo desempeñado.

Podrá concederse este permiso por la Dirección de Gestión de Personal previa renuncia expresa a las retribuciones por periodo de un curso escolar no prorrogable.

**37. artikulua.**— Azterketetan parte hartzeko baimena.

Langileek zentro ofizialetako edo homologatuetako azterketetara joateko baimen-eskubidea izango dute. Egutegiko egun bat emango zaie azterketa bakoitzeko —bai deialdi arruntetan, bai ohiz kanpoko deialdietan—, aldez aurretik egiaztagiria aurkezten badute. Baimen hori bi egutegi-egunez luzatuko da, azterketa-lekua azterketa egiten duenaren ohiko bizilekutik 150 km baino urrunago baldin badago. Baimen hau ordainduta gongo da.

**38. artikulua.**— Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara joateko baimena.

1.— Langileek eskubidea dute lanaldiaren barruan kontsulta, tratamendu eta azterketa medikuak egitera joateko, arrazoiak behar bezala egiaztatzen badituzte eta osasun-zentro horietan bestelako kontsulta-ordurik ez badute langilea lanorduetatik at joateko.

2.— Haurdunaldian dagoen emakumeak erditzea prestatzeko teknikak ikastera eta jaio aurreko azterketak egitera joateko behar beste denborarako baimena izango du, eta ordaindu egingo zaio. Asteazken ordu izango dira, goitik jota. Horretarako, egiaztatu egin beharko da jarduerak lanaldiaren barruan egin behar direla eta benetan bertara joan behar dela.

**39. artikulua.**— Zientzia-, teknika-, lanbide-, elkar-go-, elkar- eta sindikatu-izaerako gertakizun kolektiboetara joateko baimena.

1.— Era berean, biltzar, ikastaldi, ikastaro, mintegi, sinposio, topaketa, lehiaketa, elkarrizketa, hitzaldi, bilera, jardunaldi eta zientzia-, teknika-, lanbide-, elkar-go-, elkar- eta sindikatu-izaerako bestelako ekitaldi kolektiboetara joateko baimena eman ahal izango zaie langileei, zerbitzuaren beharrezan kontuan izanik eta dagokien lurralde-ordetzaritzak baimendu ondoren.

2.— Langileak bere kabuz eskatutako baimena denean, bost egunera arte ordainduko da. Muga horretatik gorako soberakina, berriz, ez da ordainduko, eta ez da kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, ez dietarik, ez bidaia-gasturik, ez egonaldi- edo inskripzio-gasturik, ez beste ezer, den-denak langilearen kontura izango baitira.

**40. artikulua.**— Hautetsien eginkizunak betetzeko baimena.

Erakundeko aukerako karguak dituzten langile finkoek edo ordezkoez kargu horren funtzioak betetzeko baimena izango dute, horretarako behar duten denborarako, beti ere horren guztizko kopurua urteko lanaldiaren % 10etik gorakoa ez bada.

Murrizketa hori lanegunaren bostenekoa, herenekoa edo erdikoa izango da, eta lansariaren atal guztien

**Artículo 37.**— Permiso para la concurrencia a exámenes.

Las trabajadoras y trabajadores tendrán derecho al permiso necesario para concurrir a exámenes académicos, en centros oficiales u homologados, a razón de un día natural por cada prueba de examen a efectuar, tanto en convocatorias ordinarias como extraordinarias, y presentando siempre el correspondiente justificante. Dicho permiso se ampliará a dos días naturales si el examen se realiza a más de 150 km del lugar de residencia del examinando. Este permiso será retribuido.

**Artículo 38.**— Permiso para acudir a consultas, tratamientos y exploraciones de tipo médico.

1.— Los trabajadores y trabajadoras tienen derecho a permiso para acudir por necesidades propias a consultas, tratamientos y exploraciones de tipo médico durante la jornada de trabajo, cuando las asistencias estén debidamente justificadas y los centros donde se efectúen no tengan establecidas horas de consulta que permitan acudir a ellos fuera de horas de trabajo.

2.— Para la realización de exámenes prenatales y cursillos de técnicas de preparación al parto, las trabajadoras embarazadas tendrán derecho a un permiso retribuido por el tiempo que resulte necesario para ello, con un máximo de 4 horas semanales. A tal efecto, deberá justificarse la necesidad de su realización dentro de la jornada de trabajo, acreditándose debidamente la asistencia.

**Artículo 39.**— Permiso para asistencia a eventos colectivos de carácter científico, técnico, profesional, colegial, asociativo o sindical.

1.— Podrá concederse permiso a las trabajadoras y trabajadores para la asistencia a congresos, cursos, cursillos, seminarios, symposiums, encuentros, certámenes, coloquios, conferencias, reuniones, jornadas y demás eventos colectivos de carácter científico, técnico, profesional, colegial, asociativo o sindical, de acuerdo con las necesidades de servicio, previa autorización de la Delegación Territorial correspondiente.

2.— El permiso, solicitado por iniciativa de la trabajadora y del trabajador tendrá carácter retribuido hasta un límite de cinco días, siendo no retribuido el exceso sobre este límite, y no causará derecho al abono de indemnización alguna, por ningún concepto, ni tan siquiera dietas, gastos de viaje, estancia o inscripción, que correrán a cargo de la persona interesada.

**Artículo 40.**— Permiso para atender a funciones derivadas de cargo electivo.

Las trabajadoras y trabajadores fijos o en cobertura de vacante que ostenten la condición de cargos electivos institucionales dispondrán de un permiso para el desempeño de aquellas funciones derivadas de dicha condición, por el tiempo necesario para ello, y siempre que el montante total del mismo no supere el 10 por ciento de la jornada anual.

Las trabajadoras y trabajadores que ostenten dicha condición podrán también, alternativamente, disfrutar

heineko beherapena ekarriko du bere baitan. Bostena murriztuz gero, ordaindu egingo da; herena edo erdia murriztuz gero, dagozkion ordainsariak hein berean murriztuko dira, kontzeptu guztiei dagokienez.

**41. artikulua.**– Norberaren gauzetarako baimena.

1.– Norberaren gauzetarako baimena, oso arrazoi borobilagatik ez bada, jardunean hasi edo lanera itzuli eta urtebete igaro arte ezin izango da eskatu.

